

GETXO / Ia 31.000 bat lagun egon dira Letren Terrazetan

GETXO.- Eguraldi latza arren Getxoko Letren Terrazek arrakasta handia eduki dute aurten ere. Pasa den ostiralean ateak itxi zuten 31.000 lagunuen bisitekin, iaz baino 4.000 pertsona baino gehiago. Uztailaren 10etik abuztuaren 31ra helduen eta txikien gozamenerako liburuak atera dituzte kalera. Gainera haurrek ludoteka, "Antzinako jokoak", "Baretze eta elkartasun jokoak" eta eskulan tailerrak izan dituzte, besteak beste. Urtero bezala, liburutegiek hiru tokitan bultzatu dute irakurtzea: Areetako eta Algortako Geltokia plazetan eta Andra Mariko Sarri plazan.

Adin guztietako lagunak igaro dira terrazetatik, nahiz eta haurrak nagusi izan. Guztira, euskarazko eta gaztelaniazko 2.500 bat liburu egon dira. Aurten, Udako Liburutegien eskaintza osatzeko, irakurtze-gune bat kokatu da Fadura kiroldegian, euskarazko eta gaztelaniazko 200 bat liburuekin.